



111 Akademiaren Saria
eman zioten
Urrietako Sarobe
antzokian, liburuaren
irakurleek hala erabakita

2014ko maiatzaren 16a, 398 zenbakia IX. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

IRAKURLEEN SARIA MIREN AGUR MEABE IDAZLEARI

Ur azkarretan trebatzen ari dira Andoainen, Leitzaran haranean

Atletico San Sebastian klubeko kideek ur azkarretan trebatzeko ikastaroak eskainiko dituzte Leitzaranen, datozen hilabeteetan.

Aurreko larunbatean Unanibia zubiaren ondotik igaro zenak piraguan zebilen gazte taldea ikus zezakeen. Donostiatik etorruta, Leitzaran haranean ikastaroa egiten ari dira. Klubeko ordezkariak Udalaren eta Aldundiaren baime-na dute, ingurugiroaren eta ekosistemaren errespetua bermatuko dutela ziurtatu eta gero.

Lehen saioan Unanibiko zubitik presa zaharrera doazen berrehun metro eskaseko tartea hartu dute euren prestakuntzarako eremu gisa. Libe Lafuente



Aurreko larunbatean Leitzaranera hurbildu ziren piraguitak, Donostiatik. Unanibia zubiaren ondian arituko dira iraila bitarte.


begiralea pozarren zegoen, “izugarri polita da inguru osoa. Ibai zati hori ere egokia ikusten

dugu piraguismoa egiteko”. Frantziara, Bidasoara, Pirinioetara..., hainbat tokitara joan

“Unanibiko zubitik presa zaharrera doazen berrehun metro eskaseko tartea hartu dute euren prestakuntzarako eremu gisa”

izan dira ur lasterretara. Udaberri honetan hasita, ordea, Andoainen arituko dira uda amaiera arte. Asteburuetan Unanibia zubi ondora gertutatzea nahikoa izango da, kirolariak piraguen gainean ikus ahal izateko. Elkartek, gainera, ateak zabalik ditu. Bertako gazteak trebatzeko prest leudeke, aukera sortuko balitz: “neguko denboralea gertatu arte ohiko ikastaroak Donostian ematen genituen. Baina zergatik ez, Andoaingo gazteak hemen bertan trebatzeko prest geundeke”. [KIROLA, 10.ORRIALDEA]

Nesken txanda heldu da



Iturzaeta pala memorialaren edizio berria aurreko asteburuan abiatu zen. Oraingoan emakumezkoei iritsi zaie lehen sartzeko aukera.

[KIROLAK, 11.ORRIALDEA]

Gipuzkoa mailako txapelduna



Izarne Mayoz Andoaingo Txirrindulari Eskolako kideak Tolosan jantzi zuen irabazleari dagokion txapela.

[KIROLAK, 11.ORRIALDEA]

Erabakitze eskubidearen aldeko jaia

Urnietar askoren interesa piztu zuen Gure Esku Dago ekimenak Saroben antolatutako ikuskizunak. Txalaparta, dantza, musika, antzerkia, batukada..., herriko kultur talde askoren lanari esker gala ederra antolatu zuten. Ekainaren 8an Durango eta Iruñea lotuko dituen giza-kate erraldoiari begira antolatutako hitzordua izan zen. Andoainen larunbat honetan kalejira deitu dute, 12:00etan hasita.

[ESKUALDEA, 3.ORRIALDEA]



© Antton Jauregi



Ekuador, bi urnietar gazte-kooperanteen bizipenak

**Maiatzak 21, asteazkena
19:00**

Lekua: **Gaztegune**



Urnietako Udala



GazteguneUrnietak



Idiazabal, 13 / behea
20130 Urnietak (Gipuzkoa)
Tel.: 943 333 973
gazteinformazioa@urnietak.org

111 AKADEMIA SARI BANAKETA EKITALDIA SAROBEN, AURREKO OSTEGUNEAN

Irakurleen saria

Miren Agur Meabe idazleari

Ostegunean izan zen 111 Akademiaren sari-banaketa ekitaldiaren edizio berria, estrainekoz Urnietako Sarobe antzokian ospatu zena. Oso ekitaldi berezia izan zen, izan ere, oholtza gainean musikak eta

hitzek izan zuten protagonismoa. Idazlea bera izan zen sari banaketa ekitaldian, eta baita Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak ere.

Kristalezko begi bat" eleberriarekin irabazi du **Miren Agur Meabe** idazle bizkaitarrak 2013ko 111 Akademiaren Saria. Irakurraldi musikatuaren eta adierazpenen artean saria jaso zuen **Mikel Pagola** Urnietako alkatearen, **Patxi Baztarrika** Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordearen eta **Zigor Etxebarria** Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Zuzendariaren eskutik.

Hiru bozketa txandaren ostean erabaki dute akademiakideek saria Meaberen eleberriak merezi duela, eta urtarrilean abiatutako bozketa prozesuko txanda guztietan izan da garaile. Lehenengo txandarako, gainera, bera izan zen akademiakideen aldetik botu gehien jaso zuena. Xehetasun horiek guztiak **Jon Unanue** Larramendi Bazkuna-Iñistorra euskaltzaleen biltzarreko lehenakariak eskaini zituen.

Euskal Literaturazaleen akademiakideak urte osoan zehar plazaratzen dute iritzia, eta ondorioz, ekitaldian iritzi horien guztien lagin txiki bat irakurri zuten. Liburua irakurri zuen akademiakide batek dioenez, oso gustura irakurri du liburua: "Norberaren bizipenak, bai onak bai txarrak, bakoitzak ditugun maniak, eguneroko bizi-tzan amorrarazten edo arrazoirik gabe haserrarazten gaituzten gaiak oso era naturalean eta itxurak gorde beharrik gabe azaltzen ditu". Bestalde, konturatu gabe, ezaugarri fisiko nabarmen bat dutenei nola begiratzaren zaien pentsarazteko eta jarriera aldatzeko ere baliagarria dela adierazi zuten. "Azalpenen gordintasunak eta biluztasunak egiazko zirrara eragin zidan, hunkitzeraino." dio beste batek.

Saria eman eta iritziak irakurtzeaz gain, 111 Akademiak ekimen eta ekintza berriak izango dituela aurreratu zuten. Horren adibide da ohorezko akademiakideak izendatzeko ekimena. Izan ere, udazkena aldera ohorezko akademiakide-



Mikel Pagola Urnietako alkatearen, Patxi Baztarrika Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordearen eta Zigor Etxebarria Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Zuzendariaren eskutik jaso zuen saria Miren Agur Meabek.

en izendapena egingo dute, literaturaren unibertso guztia osatzen dutenen artean hautatuko dena. Unibertso hori itzultzaileek, argitaratzaileek, kazetariak, liburu saltzaileak, abeslariak, kritikariak..., eta beste hainbatek osatzen dutela

Sari-banaketa ekitaldia lehenaldiz Urnietan burutu zen

azaldu zuen Jon Unanuek, eta mundu horren baitan dabilzarenak omendu nahi dituztela ar-

gudiatu zuen, lan isilaren bidez euskal literatura aurrera ateratzen ibiltzen direlako.

Ekitaldiari amaiera emateko, luntx baten bueltan elkartu ziren. Denek ere pintxo ederrez eta irabazlearen konpainiaz gozatzeko aukera izan zuten.

Liburua idatzi bitartean irakurlea lagun izan duela azaldu zuen idazleak

Sarituaren esker oneko hitzak



Miren Agur Meabek ehun eta hamaika mila esker eman zizkion Akademiari, Larramendi Kultur Bazkunari eta sari-banaketa ekitaldian izandako guztiei. Liburua idatzi bitartean irakurlea lagun izan duela azaldu zuen idazleak, eta lehen orrialdetik bilatu zuela haren konplizitatea: "Galdetu diot ia nire antzekorik bizi izan ote duen, eta ea zilegi deritzon horretaz baliatzea literatura egiteko. Galdetu diot ia anakronikoa deritzon saminean

edertasuna bilatzeari, eta ezintasunean kemena irudikatzeari. Eta galdetu diot ia harrapatu duen jolasa, kristalezko begia ez da benetan kristalezkoa, eta kopia ahalik eta zehatzenak izanik ere inoiz ez dira errealtatea bera".

Irakurle mordoia izan du lagun: batzuetan liburu komenigarriak eskuan jarri dizkion adiskidea, besteetan idazle oker bat, bere semea, Lekeitioko etxeakoandre bat, bulegoko ka-



IRAKURKETA

Sari-banaketa ekitaldian liburuaren pasarteak irakurri zituzten, The Icer Company musikariaren laguntzaz. Besteak beste irakurtaldian Elisabet Masek, Mila Izuetak edota Joxeba Lizeagak hartu zuten parte.



joian nobela gorde eta tarteka irakurri duen idazkaria, aholkuak eman dizkion editorea... "Eta liburua amaitu eta gero irakurleak baiezkoa berretsi dit. Horregatik, ez dago sari ederragorik hau baino. Horrenbestez, kristalezko begi hau begiratu duten guztiei eta une honetan zehazki baita hain zoragarri irakurri duzun irakurleoi ere, ehun eta hamaika mila keinu eta bat gehiago. Mila esker bihotz-bihotzez."



Kultur jaialdia, herritik sortua

Urnietako Gure Esku Dago ekimenak kulturaz jantzi nahi izan zuen erabakitze eskubidea, osagai ugari izan zituen jaialdia antolatuz.

Berrogeitik gora herritarrek hartu zuen parte ekimenean, eta ikuskizunaz gozatzera hurbildu ziren askotxo izan ziren. Hilabete baino gutxiago geratzen da giza-kate erraldoirako.

Urnietan Gure Esku Dago ekimena sasoi-ko dago. Aurreko larunbatean kultur jaialdia antolatu zuten eta asteazken honetarako mahai-ingurua deitu zuten. Ekimenarekin bat egiten ari diren herritarrek ere geroz eta gehiago dira. Ehunka joango dira, beraz, ekainaren 8ko giza-katera. Sakana aldera egokitu zaien tokira, Buruntzaldeko gainerako herri-kideekin batera.

Ohiko agerraldi edota argazki erraldoiez haratago, ez ohiko ekitaldiak antolatzeak meritu handia du. Aurreko larunbatean herriko kulturgileek erakustaldia eskaini zuten herritarren aurrean, erabakitzeko eskubidearen alde. Txalala-



Ezker eskuin, lau artista handi: Xabi Ubillos, Adriana Unanue, Xabi San Sebastian eta Monika Redondo.

parta, musika, antzerkia, dantza..., Urnietako kultur jardueren oparotasunaren adierazgarri izan zen Sarobeko ikuskizuna.

ESKER ONA

Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete jaialdia egin ahal izateko laguntza eman dieten hainbat lagunei: Urnietako Udalarari, Sarobeko langileei, Muazpi harategiari, Trazos ileapaindegari, Kantoiei, Amailur eta Xauxar tabernei. Urnietarrak izan gabe, ekitaldiarekin bat egin zuten, Xabi San Sebastian abeslariari eta Monika Redondo biolinjoleari.

Eta baita musutruk ekitaldian parte hartu zuten berrogeitik gora herritarrei ere.

Metroa edota kamiseta erosteko tokiak

Kanpainarekin bat egiteko guneak

Giza-kate erraldoian parte hartu nahi duenak izena eman behar du, eta 5 euro ordaindu. **Andoainen** hauexek dira saltokiak: Aralai, Ernaitza, Ikelatz, Keinu, Li eta Urrats.

Urnietan giza-katerako izena emateko: Amailur, Kantoiei, Xauxar tabernetan eta Trazos ileapaindegian.

Kamisetak 10 eurotan salgai Trazos ileapaindegian (Yurramendi kalea, 26).



Eguerdiko 12:00etan Juanita Alkain plaza aldera abiatuko dira

Kalejira Andoainen, larunbat eguerdian Goikoplazan hasita

Ekainaren 8rako entsegu modukoa izateaz gain, herrietan bertan kanpaina sustatzeko giza-kateak egiten ari dira Euskal Herrian barrena. Andoaingo taldeak larunbat honetarako kalejiran parte hartzeko deialdia luzatu du, eguerdiko 12:00etan Goikoplazatik abiatuko dena. Juanita Alkain plaza iritsita, bilduko den jendearekin, giza-katea egitekoak dira.



Gabirondo memoriala



Iaz hamasei tiratzailek hartu zuten parte. Irabazlea Iraitz Oiarbide izan zen.

Santa Krutz elkarteko kideek igande honetan -maiatzak 18- Antonio Gabirondo memoria-laren edizio berria ospatuko dute Arkaleko tiro zelaian (Oiartzun), Compak Sporting eran. Txapelketa goizeko be-

deratzietan hasiko da, eguerdiko ordubatak bitarte. Iaz, 16 tiratzailek parte hartu zuten eta irabazlea Iraitz Oiarbide izan zen. **Izaskun Balda** Gabirondoren alargunaren eskutik jaso zuen txapela.

Bosko Anitz aisialdi taldea

Larunbat honetan Bosko Anitz aisialdi taldeak ikasturteari amaiera emango dio "Onyi jaialdia" delakoarekin. Arratsaldeko 17:00etan hasita kantaldia antolatu dute, hain-

bat parte hartzaileekin. Sorpresa ugari izango dela aurreatu dute. Aisialdiko kideek jaialdira gerturatzeko deialdia egin diete herriko gaztetxoei.

Hitzaldia Denda Berrin

Datorren asteazkenean -maiatzak 21- 17:00etan hasita, hitzaldia eskainiko dute.

Eta jarraian, kafea. Hitzaldia- ren izenburua honakoa da: "Memoria nola mantendu".

San Juan plazako taberna eskuz aldatu da aste honetan

Kantoiako Mari Karmenen azken lan eguna

Hogeita bost urtez Urnietako San Juan plazako Kantoi tabernaren ardura izan ondoren, joan zen asteazkenean esan zuen agur **Mari Karmen Astiasaranek**.

Mari Karmen ohiko tabernari bat baino askoz gehiago izan da bere bezeroentzat, eta oro har, herritarrentzat. Bere umore ona eta bezeroak "manejatzeko" ezker esku aparta izateaz gain, hainbat bezeroentzat, besteak beste, erizain edo psikologo lanak egin izan ditu.

Herriko elkarteentzat eta edozein ekitalditarako sarrerak saltzeko gunea izan da Kantoi taberna, eta horrez gain, apai-zarentzako errekaduak jaso eta herritarrek beraien arteko harremanetarako erabili izan duten gunea. Urnietar askok zenbat alditan esan ote du, gauza baterako edo besterako "Kantoi tabernan utziko diat hire izenean".

Azken egunetan, ez da esker oneko hitzik eta lore sortarik falta izan Kantoi tabernan.



Mari Karmen Astiasaran, egun hauetan Kantoi tabernan lanean zela.

Aiurri eta Iñistorra elkartetik bere eskuzabaltasuna eskertzeaz gain, Mari Karmen Astiasarani etorkizunean onena opa diogu.

MIRIAN CARRO
ARDURADUN BERRIA

Aurrerantzean Kantoi tabernak arduradun berria izango du, **Mirian Carro** hernaniarra

Mari Karmen ohiko tabernari bat baino askoz gehiago izan da bere bezeroentzat

hain zuzen. Ostegun honetan bertan inaugurazio ekitaldia egingo dute, arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara.

SARRERAK DAGOENeko SALGAI:

Urnietak < Kantoi, Amailur.
Andoain < Aiurri, Ernaitza.
Hernani < Ametsa.

Maiatzak 28, asteazkena
17:30. 7 euro
Egape ikastola • Urnietak

Urnietak

BIZIPOZA

TALDE BANA OSATU DA AITA LARRAMENDI IKASTOLAN ETA LA SALLE BERROZPEN

Guraso eskolak haurren gurasoei zuzenduta

Euskara ikasteko bi guraso talde sortu dira Andoaingo ikastetxeetan aurtien lehenengo aldiz, AEKko irakasleek gidatuta. Otsailean hasi zen 60 orduko iraupena duen ikastaroa, Ainara Loiarte eta

Iker Goñi irakasleekin. Astean hiru egunez biltzen dira; "poliki, poliki" ikasteko filosofiarekin bildu ere, Celia Parra ikasle argentinarak aitortu duen bezala.



Aita Larramendi ikastolako taldea: Ika Fernandez, Karmele Ramudo, Jose Polo, Nahum Linares, Maria Angeles Ibarguren eta Conchi Martin; atzean, Ainara Loiarte irakaslea.



La Salle-Berrozpeko taldea: Susi Valdes, Belen Moreno, Celia Parra, Fatima Caño eta Iker Goñi irakaslea.

Kris Bernal ikastaroaren koordinatzaileak, euskalduntze prozesuan berritzailea den guraso taldeen egitasmoa azaldu dio Aiurri: "Udal euskara zerbitzuak ikastetxeei proposatu zien ideia, eta haien laguntzarekin aurrera egin du. Eskaintza, berez, haurren zaintzaz arduratzen diren pertsona orengana zuzentzen da, nahiz eta gurasoak izan gehien animatu direnak".

Oinarrizko euskara erakutsi nahi zaie ikasleei, "izan daitezela hitz eta esaldi jakin batzuen jabe, euren seme-alabekin, egunerokotasunean, gutxieneko komunikazioa edukitzeko".

Zenbait hilabete igaro dira bi taldeak abian jarri zirenetik, eta balorazio baikorra egiteko moduan direla aitortu du Kris Bernal: "Ikasleak gogoz etortzen dira. Ikasturtearen bukaeran inkesta orria emango zaie euren iritzia jaso asmoz. Orain arte esaten digutena kontuan hartuta, badauzkagu pozik egoteko motiboak. Sumatzen dute aurreratzen ari direla, egunetik egunera gehiago eta errazago komunikatu daitezkeela euskaraz euren seme-alabekin, eta hori pizgarri da beraientzat".

Ikasle bakoitzak euskara maila ezberdina eduki arren, guztiak ere antzeko motibazioekin hurbiltzen dira ikasgelatara: eu-

ren seme-alabek euskaraz egiten dituzte ikasketak, baina gero horiekin ezin dute euskaraz egin. Ezintasuna sentitzen dute, eta egoera horrek euskara sakontzera bultzatu ditu.

Belen Moreno, adibidez, Caceresen jaio zen eta badira hamabost urte Andoainen bizi dela, "hiru hilabete pasa dira eskolan hasi ginenetik, eta egunero zerbait ikasi dut. Nire ikaskideei baino gehiago kostatzen zait askatzea, baina hori bai, arreta jartzen diet inguruan sumatzen ditudan elkarrizketei".

Susi Valdes eta **Conchi Martin**, esaterako, euskal hiztunez inguratuta bizi dira etxean. Egoera hori erabakiorra gertatu da gurasoen taldera arrimatzeko. Martinen esanetan, "nire bikotea euskalduna da, eta bi seme-

alabek ere D ereduari ikasten dute. Gutxiengo naiz etxean, eta niri dagokit aldatzea. Saiatu, saiatzen ari naiz, bikotearekin batez ere, orain arte gaztelaniaz aritzen baiken elkarrekin. Lagunekin, dendariekin eta edonorekin ere ez daukat arazorik euskara erabiltzeko. Buruan daukadana adierazteko gauza naiz, baina hori bai, aditzekin trabatu eta esaldia errematatu ezinik ibiltzen naiz".

Gurasoak dira ikasle gehienak, baina tartean badira bi amona: **Ika Fernandez** eta **Maria Angeles Ibarguren**. Olaia bilobarekin euskaraz egin nahi luke lehenak; bigarrena, berriaz, amona izango denerako prestatzen ari da. "Etorkizunean, bilobarekin beste inorekin baino gehiago praktikatzeko asmoa

daukat. Horretarako nire burua prestatzen hasi nahi dut. Hitz solte batzuk badakizkit, baina nahastea daukat buruan euskararekin. Izan ere, sei urte nituela Argentinara joan nintzen familiarekin, eta han euskara izan zen galdu nuen lehenengo gauza".

ZAILTASUNAK, ILUSIOAREN PARE Denek ere, ilusioa eta poza agertzen dute egunez egun aurrera doazelako euskara menperatzeko bidean. Seme-alabak edo bilobak laguntzaile ezin egokiagoak izan daitezke mintza praktikarako, ikasle horientzat. Baina baita zailtasunak jartzeko orduan ere! Horixe gogoratu du Ika Fernandezek: "Eskolan hitzak, esaldiak, oharrak hartzen ditu-

gu gero praktikan jartzeko. Baina ez da erraza gaintitzea hanka sartzeko beldurra edo urduritasuna gaintitzea. Ni Olaia bilobarekin saiatzen naiz, baina umea da oraindik, eta gauzak pentsatu bezala adierazten dizkizu; lehenengo egunean, esaterako, gaztelaniaz hitz egiteko eskatu zidan, euskaraz tutik ez omen zidala ulertzen".

Belen Morenoren bi semeek badakite euskaraz, baina horiei ere kosta egiten zaie amarekin hitz egitea. "Nahiago dute lagunekin, naturaltasunez ateratzen zaie haiekin. Gauzak horrela, tratua egin dugu: beraiek euskararekin lotutako gaiak zuzentzen edo itzultzen dizkidate, eta neuk euren etxeko lanetan laguntzen diet".

Eskolak,
hileta-oharrak
Aiurri
astekarian

@diseinua@aiurri.com
☎ 943 300 732



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

EAJ-PNVren agerraldia, aurrekontuen harira



Urdangarin, Baltasar eta Izagirre Andoaingo EAJ-PNVko ordezkariak.

Aurrekontuak bigarren urtez jarraian onartu gabe geratu direla eta, jeltzaleek Udal Gobernuari leporatu diote erantzukizun hori. “Bilduk bere porrota demagogiaz estali nahi du” goiburua zuen agerraldia egin zuten, aurreko ostegunean, Andoaingen Udalordezkariak duten Andoni Baltasar, Mari Jose Izagirre eta Eneko Urdangarin EAJ-PNVko zinegotziek.

Alderdiaren interes orokorrera makurtuta dagoela, Bilduk ez duela andoaindarren lehenetsun errealekin bat egiten uste dute jeltzaleek: “EAJ-PNVtik argi dugu Andoaingo arazoak Andoaingen konpondu behar direla, eta horretarako ezinbestekoa dela ausardia, elkarriketa eta inplikazioa. Bide honetan, lau lan ildo nagusi ezarri ditugu, gure iritziz ezinbestekoak eta onargarriak direnak”. Hots, pilatuz doan defizitarekin amaitzea, inbertsio partida garrantzitsua erabakitzea, gastu arrunta murrizteko partida ezberdinen berrikuspena eta gastu soziala indartzeko fondoa sortzea.

EAJ-PNVk dioenez, “Andoaingo Bildu *hitz politetik* konpromisoetara eta xehetasunetara igarotzeko ez da gai izan; ez dute gaien saskondurik nahi izan, ez dute partida ezberdinez, zenbakiez eta aurrikuspenez hitz egin nahi izan”.

Jeltzaleen arabera, eurek akordio global baterako proposamena eskaini zieten, zein角度 Andoaingo berraktabazioa lortzeko konpromiso zehatzak biltzen ziren. Plan hori legealdi honetaz haratago luzatuko litzateke, 2014-2017 urteen artean.

EAJ-PNVk bere oharren amaieran Bildurekin izandako elkarriketa-negoziaketak hizpide hartzen ditu: “Nahiz eta ustez printzipio orokorretan ados egon gintezkeen, printzipio horiek gauzatzeko ezinbestekoak diren konpromisoak hartzerakoan arazok sortzen dira. Negoziaketan porrota atsekabez jasotzen dugun arren, Andoaingo plenoan ordezkariak duten gainerako alderdiekin akordioa bilatzeari ez diogu uko egin nahi”.

Sagardo denboraldiaren balorazio ona egin dute

2014ko txotx denboraldia amaituta, nazio mailako eta atzerriko bisitarien kopurua handitu egin dela adierazi du Sagardoetxea erakundeak.

Astigarragan Sagardo Berriaren Eguna ospatu zuten, kanpoko komunikabideen presentzia aurreko urtetakoa baino handiagoa izan zela ohartu ziren. Horrek, gerora, atzerriko bisitariengan eragina izan du. Izan ere, sagardotegietan antolatutako probaketek arrakasta handia izan dute eta gipuzkoarrez gain, asteburu pasa etorritako Cantabria, Asturias, Madril eta Frantziako

bisitariak ere izan dira tarteetan, bisitarien %26 hain zuzen. Krisiaren eragina Gipuzkoarren artean nabaritu da gehienbat, bertakoen sagardotegietarako joan-etorrria murriztu egin baita.

Bestalde, salmenten kopurua %15 igo da, atzerriarren kopuruak goraka egin duen bezalaxe. Igoera horren arrazoiak esperientzia turistikoko ezberdinen sorrera izan da. Azkenik, sagardotegi denboraldiak inguruko zerbitzuetan ere eragina izan duela adierazi dute, batez ere, ostatuetan eta garraio publikoan.

Jai batzordeak dagoeneko hautagai zerrenda jaso du

Sanjuanetako txupinazoa botatzeko aukeraketa

Ekainaren 20an, ostirala-ekin, udaletxeko balkoitik pregoia irakurri eta txupinazoa botako dela iragarri dute. Nork edo nortzuk egiteko hautaketa prozesua martxan da eta jai batzordeak, dagoeneko, hautagaien zerrenda jaso du. Hautagaien artean pertsonak, elkarteak eta taldeak aurki daitezke. Hautagai guztien artean laster hautatuko dute 2014ko jaiak hasiera emateko protagonista edo protagonistak.

Aurten jaiak ekainaren 20an



hasi eta hilaren 24ra arte luzatuko dira. San Juan egunez, asteartearrekin, amaituko dira

jaiak. Iaz bezala, “Cavalfoc” su ikuskizunarekin amaiera emango diete ospakizunei.

Ekainaren 7an Oianumen; alde aurretik izena eman behar da

1949an jaiotakoen bazkaria

1949an jaiotakoek bazkaria egingo dute ekainaren 7an, Oianume jatetxean. Aldez aurretik izena eman beharra dago. Ekainaren 1a baino lehen 40 euro sartu behar dira An-

doaingo Laboral Kutxako kontu-korronte zenbakian: 3035 0026 21 0261124323. Informazio gehiago: Patxi (606 927 468) edo Jose Joaquin (660 798 128).

ARGAZKIA ETA BAZKARIA

Ekainaren 7an eguerdiko 13:30etan taldeko argazkia aterako dute Goikoplazan. Bazkaria, berriz, 14:30etik aurrera izango da Oianumen.

GRANABOT SARIKETAN BIGARREN



La Salle Berrozpe ikastetxeko talde batek, Erreterriako Don Boscorekin batera, Zokozori izeneko robota egin du, zeina geolokalizaziorako prestatu duten. Giro ezberdinetara egokitzen da eta Androiderako egokitutako App baten bitartez kontrola daiteke. Granadan egin zen lehiaketan bigarren saria lortu zuten. Egitasmoan parte hartu dute, besteak beste, Mikel Arrikarte ikasleak eta Josema Fernandez irakasleak. Zorionak!

COMENIUS EGITASMOAREKIN HUNGARIA ALDERA



Maiatzaren 12tik 16ra bitartean, Budapest (Hungaria) dira Andoaingo Aita Larra-mendi Ikastolako zortzi ikasle, irakasle bat eta zuzendaria, Comenius izeneko programan parte hartzen. Andoaingo Ikastolako ikasleek ‘Energy, an inspiration’ proiektua aurkeztuko dute: Europarako energia sare egokiena zein litzatekeen proposatzea helburu duen proiektua, hain zuzen ere.

Azken bi urteetan gertatzen ari da, eta EHUK egoera ikertu du

Sorabillan dagoen usain txarra aztertu dute



Euskal Herriko Unibertsitateko Kimika saileko Lourdes Canton eta Migel Angel Barrero irakasleek datuak bildu eta Sorabillako kasuarekin azterketa egin dute. Auzotarren artean aurkezpena egin zuten aurreko astean.

Sorabillako bizilagunak usain arraroak sentitzen ari dira auzoan azken bi urtetik hona, eta kezkatuta daude. Sentsazio ezatsegina bizitzeaz gain, euren osasuna jokoan egon litekeela iruditzen zaie.

Kiratsa ez da etengabea, tarteka baizik ez dute sumatzen bizilagunek. Andoaingo udaltzainek eta ingurugiroko teknikariak ere baieztatu ahal izan dituzte usain horiek.

Errotagain-Sorabilla elkarteak, bere garaian, Udalari ke-xua agertu eta usainaren jatorriaren inguruan ikerketa abian jartzeko eskatu zion. Udalak, bizilagunen ezinegonari irtenbidea bilatu nahian, Euskal Herriko Unibertsitateko Kimika saileko **Lourdes Canton** eta **Migel Angel Barrero** irakasleengana jo zuen.

Bi irakasleek, besteak beste, Sorabillako plaza inguruan aparatu berezi bat kokatu zuten laginak biltzeko, eta bestelako informazioa ere jasotzen joan dira harrezkero. Bada, txostena osatu berri dute, eta edukia joan den ostegunean aurkeztu zieten Sorabillako auzotarrei.

Egoerak kezka piztu du Sorabillako auzotarrengan, eta horietako ugari bildu zen aurkezpenean. Bertan izan ziren, halaber, **Ana Carrere** alkatea, **Jose Luis Vela** eta **Toñi Landa** oposizioako zinegotziak eta **Ramon Varela** udal teknikaria.

Lourdes Cantonen esanetan, erabat baieztatu daiteke Sorabillako atmosferan ohikoak ez

Lourdes Canton ikerlariaren esanetan, erabat baieztatu daiteke Sorabillako atmosferan ohikoak ez diren isurketak egiten direla tarteka

diren konposatuak isurtzen direla noizik eta behin. Bi irakasleek lehendik ere laginak jasota zeuzkaten Andoaingo atmosferan, eta argi geratu zaie Sorabillako oraingo horiek ez dutela zerikusirik haiekin.

Nolanahi ere, Cantonek zehaztu nahi izan zuen ezin izan dituztela identifikatu Sorabillako airean tarteka antzematen diren sustantzia horiek, ki-rats eragileak.

Gaia uste daitekeena baino konplexuagoa dela adierazi zuen Cantonek. Airearen kalitatearen eta kutsaduraren inguruan, egun indarrean dagoen legedia eta honek dauzkan gabeziak gogorarazi zituen, besteak beste: "nahiz eta ehunka sustantzia egon egunero arnasten dugun airean, bakarra da arautua dagoena, eta hori bentzenoa da".

HIPOTESIAK BAZTERTZEN

Laginak eskuetan, zenbait hipotesi aztertu dituzte bi irakasleek, bakarrarekin geratu diren arte. Sorabillatik gertu diren uren araztegia eta zenbait lantegi baztertu egin dituzte sustantzia isurtzaile gisa, bakoitzarekin azterketa zehatza egin eta gero. Eta horrela, Sorabillako auzoan bertan ko-

Ur araztegia eta zenbait lantegi baztertu ondoren, Sorabillako auzoan bertan kokatzen den lantegi batengana bideratu dituzte begiak

katzen den lantegi batera bideratu dituzte begiak. Ez dute frogarik hatz salataria luzatzeko, baina susmoa badute. Alegia, enpresa hori bera da ekoizpen prozesuan ezezaguna den sustantzia bat manipulatzeko duena eta atmosferara isurtzen duena.

Gauzak horrela, ofizialki, alor ugari geratzen dira zehazteke: zeintzuk diren sustantzia usain eragile horiek, nork emititzen dituen, gizakiaren osasunarentzat kaltegarriak ote diren...

Antzeko kasuetan daukaten eskarmentua kontuan hartuta, bi irakasleek, etorkizunari begira abian jarri litekeen prozedurarik egokiena adierazi zuten; beti ere Sorabillan bizi edo lan egiten duten gizakien bizi kalitatearen mesedetan izango dena. Hain zuzen, Udalari, enpresa horrekin harremanetan jartzeko gomendatu zioten, bien artean usainen jatorria ikertzeko eta etorkizuneari saihesteko neurriak adostu ditzaten. Bilerara hurbildu ziren Sorabillako bizilagunek ere bat egin zuten gomendioarekin. Udalaren ize-nean, Ana Carrere alkateak bide horri ekiteko konpromisoa hartu zuen.

“Ez gara Palestinaz ari” ikuskizuna Goiburun



Goiburuko ermitan ikuskizuna eskainiko dute, maiatzaren 30ean.

SEGA San Estebango Gazte Asanbladako kideek astelehenean iragarpena egin zuten: “Goiburuko ermitari bizi pixka bat ematen hasteko gogotsu gabiltza, eta hilabete honen amaieran estreinatuko dugu, *Ez gara Palestinaz ari* ikuskizunarekin. Anima zaitetze!”. Ekitaldia maiatzaren 30ean izango da.

Ikuskizunak Andoaingo Basteron hasi zuen jendaurreko ibilbidea, 2013ko otsaillean. Arrakasta handiarekin gainera. Han eta hemen saio ugari eskaini dituzte geroztik, jendetza erakarritik. Ekitaldia ikusi ez duenarentzat horra ideia bat egiteko aurkezpen-txoa: “Ordu eta laurden irau-

PARTE-HARTZAILEAK

- **Ander Lizarralde**, bertsoak eta antzerkia.
- **Unai Muñoa**, bertsoak eta antzerkia.
- **Imanol Kamio**, pianoa eta akordeoia.
- **Aitor Atxega**, gitarra.

ten duen ikuskizunean, esan liteke, publikoaren aurrean biluztu egiten direla bertsolariak, barnean guztiok ditugun emozioak azaleratuz. Minak, frustrazioak, konplexuak, desioak edota amorruek kanporatzen dituzte, euren buruaz ere barre egin ez.

“Udaberria zelaian” jaia Etxeberrietan hilaren 31n



“Atera ohialak eta etzan lasai!” lemapean burutuko da ospakizuna.

Etxeberrietako auzokideek afari-merienda antolatu dute maiatzaren azken egunerako, eta zelaia hartuz auzoko belardian udaberri giroko arratsaldea igarotzera gonbidatu nahi dituzte herritarrak. Arratsaldeko lauretan hasiko da festa eta iluntzera arte jardue- ra ugari burutuko da; musika, jolasak, tailerrak...

Hona hemen egitaraua:

Maiatzak 31, larunbata

16:00 Haur jolasak belardian: “Har ditzagun zelaia, atera ohialak eta etzan lasai!”.

17:00 Piano doinu gozoak. Haurrek askaria jaten

duten bitartean, helduek eskuragarri izango dituzte tea eta pastak. “Kontu pila esango dugu, konpondu beharrekoa konponduz eta mintza praktika egin ez”.

18:00 Urdaiazpikoaren zozketa (tiketak tabernetan salgai) eta afari-merienda (bakoitzak berea eramane behar du).

21:00 Festari amaiera emateko musika zuzenean: Ostruka's band.

Egunean zehar eskuragarri egongo dira zenbat edari, izozkiak eta pastak.

EUSKARAZ IKASI DUTEN IKASLEEKIN SOLASALDIA

Lanbide Heziketa euskaraz, aukera bizia

Buruntzaldean Lanbide Heziketa euskaraz ikasi duten Andoni Urdanpilletak, Jon Urretabizkaiak, Eneko Elosegik, Idoia Iribarrek eta Beñat Esnaolak euskaraz formatzen jarraitzeko aukera ezin ho-

bea dela azaldu dute eskualdeko hedabideekin izandako solasaldian.

Bideoa: www.aiurri.com

Andoni Urdanpilletak goi-mailako Mekani-zazio zikloa egin du La Salle-Berrozpe ikastetxean, Jon Urretabizkaia eta Eneko Elosegik Urrietako Salesiarrak ikastetxetik datoz eta, azkenik, Idoia Iribar eta Beñat Esnaola Zubietako ikasleak dira, lehenak goi-mailako Administrazio zikloa egin du eta bigarrenak goi-mailako Mekanizazioa.

Ziklo guztiak euskaraz egiteko aukera eskaintzen dela adierazi dute, D ereduan ez bada, B ereduan bi hizkuntzatarik ikasi daitekeelako. Gauzak horrela, guztiek euskaraz ikastearen garrantzia azpimarratu nahi izan dute eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleak horrela egitera animatu dituzte. Izan ere, gaur egun eskaintza zabala egoteaz gain, bi hizkuntzak menperatzen dituen profesionala baliagarriagoa dela azaldu dute; gero eta hizkuntza gehiago jakin, orduan eta aberatsagoa izango baita langilea. “Bi aukerak izanda, dudarik gabe, euskaraz egitera animatuko nuke jendea”, azaldu du Idoiak.

Hala eta guztiz ere, bi esparru bereiztu dituzte; batetik, ikasgela eta, bestetik, tailerra edo laneko esparrua. Ikasgelari dagokionez, euskarazko ikasgaietan azalpenak euskaraz jasotzen dituztela eta material gehiena ere euskaraz du-



Guztiak euskaraz ikastearen garrantzia azpimarratu nahi izan dute eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleak horrela egitera animatu dituzte.

tela azaldu dute. Hala ere, egoerak hala behartuta, kasu zehatz batzuetan irakasleak azalpen batzuk gaztelaniaz azaltzen dituela eta zenbait eduki, euskarara itzuli gabe egoteagatik, erdaraz jasotzen dutela aitortu dute; programazioko jarraibideak eta Espainiako Konstituzioa, besteak beste.

D EREDUKO TALDEA OSATZEAREN GARRANTZIA

Garrantzitsuena D ereduko taldea ateratzea dela esan dute, euskara ez dakien jendea gelan tokatuz gero, ikasgaia

Guztiak euskaraz ikastearen garrantzia azpimarratu nahi izan dute eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleak horrela egitera animatu dituzte

gaztelaniaz egitera behartuta daudelako. Kasu horretan, irakasleek arreta berezia jartzen dutela eta gaztelaniaz eroso sentitzen ez direnei euskarazko azalpenak ematen dizkietela azaldu dute. Hau da, irakas-

leek ahalegina egiten dute behar guztiak asetzeko eta denek ahalik eta ondoen erantzuteko. Beñat Esnaolak dioenez, irakasleen jarrerak pisu handia dauka: “Gure ikastetxeko makina eta erreminta guztiak euskaraz izendatuta daude, eta bertako azalpen guztiak irakasleak euskarara itzuli dituzte”.

Bestalde, lan esparruari dagokionez, hitz teknikoak erdaraz erabiltzen dituztela, eta euskaraz jakin arren, praktikan jartzerakoan gaztelaniara jotzen dutela aitortu dute.

Garaiak eta belaunaldiak aldatzen doazen heinean euskara lan esparruan pixkanaka normalizatuz joango da

Euskaraz erosoago sentitzen diren arren, hiztegi teknikoaren erabiltzeko unean gaztelaniara jotzen dute, denek azkarrago eta errazago ulertzen dutelako. Azken finean, hitz teknikoak egunerokotasunean errazago eta ondo ulertzeko kodigokak direla diote, eta, beraz, lan orduetan gaztelaniazko hitzak txertatzen dituzte.

Gainera, euskararen erabilera enpresaren arabera dela uste dute; izan ere, batzuk euskara plana duten arren, beste askok ez dietela hizkuntzari horrenbeste garrantzia ematen azaldu dute. “Ez da berdina enpresa zaharra edo gaztea den, bezeroak hemengoak edo atzerrikoak diren... Hori guztia kontuan hartu behar da”, dio Andoniren irakasle den Iñaki Aranburuk.

Gaur egun euskara erabiltzeko zailtasun askorik ez dagoen arren, bi hizkuntzak erabiltzera ohitu behar dutela diote. Zaila iruditzen zaion arren, garaiak eta belaunaldiak aldatzen doazen heinean euskara lan esparruan pixkanaka normalizatuko dela eta euskaraz lan egiteko joera barneratzen joango dela sinesten dute.

Maiatzaren 1etik 31ra Salkinek hiribuseko txartela ordainduko dizu

TIPI-TAPA

AURRERANTZ GOAZ

SORABILLA



Gutxienez 5 €ko erosketak



ANDOINGO UDALA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



SALKIN

Postontzia: “Andoaingo ura ezberdina da”

ANA CARRERE
ANDOAINGO ALKATEA:

Ermua. 2014ko maiatzaren 7a. Udal batzarraldia. PSE-EEren gehiengo osoko gobernua, PPrekin batera. Oposizioko alderdiak: EH Bildu, EAJ-PNV eta Ezker Anitza-IU. Uraren kudeatze orokorra Gipuzkoako Ur Partzuergoaren esku uztearen proposamena ahobatez onartu zuten.

Andoain. 2013ko irailaren 26a. Udal batzarraldia. EH Bilduren gutxiengo gobernua. Oposizioan alderdiak: PSE-EE, EAJ-PNV eta PP. Udal gobernuaren proposamena uraren kudeaketa orokorra Gipuzkoako Ur Partzuergoaren esku uztea da. Proposamena ez zen onartu oposizioko alderdi guztiek aurka egin zutelako (PSE-EE, EAJ-PNV, PP).


Ermua. Ermuako EAJ-PNV-ko ordezkariaren hitzak euren jarrera azaltzen, DEIA egunkarian (2014/05/04): “Guk nahi duguna da uraren gipuzkoar erakundeak prozesu guztia bere gain hartzea...”; “nahi ez duguna da depuradoraren kudeaketa bakarrik sinatzea, osoko eskualdatzea nahi dugu”.

Andoain. Andoaingo EAJ-PNVren prentsa oharra, DV egunkarian (2013/09/13): “Andoaingo EAJ-PNV Udal taldeak, Bilduren Udal gobernu salatu du uraren zerbitzu publikoa pribatizatzerakoan *epe motzekoa* izateagatik eta Udal kutxa hipotekatzeagatik”.

Hori guztia azalduta, zertan gaude? Alderdi horientzat Andoaingo uraren kudeaketak bestelakoa izan behar ote du? Edo EH Bildu agintean egotea ote da arazoa?

Udal gobernura heldu gineanean, uraren kudeaketak zulo nabarmenak zituela sumatu genuen, ekonomikoak zein materialak. Hoditeriaren %21,3 nahiko hondatua dago, hodi zaharkituekin, ezinbestez aldatu beharrekoak. Horretarako behar den diru partida 5 milioi eurokoa da, Andoaingo Udalak gaur egun bere gainean hartzea ezinezkoa duena (eta, nire iritziz, baita beste edozein Udalek ere).

2011ko amaiera aldera galera ekonomikoak agertzen hasten dira, gaur egun, batzaz beste, urteko 400.000 eurokoa izanik. Hori guztia alde batera uzten baditugu konponketak eta inbertsioak, inondik inora gure gain ezin



hartzekoak, eta ahal dugun moduan heltzen dizkiogunak.

2010 urte amaiera arte, Andoainek ez zuen ur kontsumoa ordaintzen, zuzenean Leitzaranetik hartzen baitzuen. Hori dela eta, tasak eta gastuak kontuan hartuta, Andoainek urtero 500.000 euroko irabaziak izaten zituen, gutxi gora-behera, urte batzuetan irabazia bikoiztu egiten zelarik. Nola liteke halako irabaziekin oraindik egin gabeko inbertsioak edukitzea eta, baita ur zikinak ibaira zuzenean botatzen jarraitzea?

Beraz, argitu beharko digutena da, euren burua kudeatzaile publiko apartatzat duten horiek eta Bildukoak zarpail batzuk garelako diotenean, zer egin zuten Andoain uraren kontsumoa irabazi handiak ematen zituenean.

Teknikoek ohartarazita eta txostenak tarteko, legegintzaldiaren hasieran gobernu taldean uraren kudeaketa Partzuergoaren esku uztea serio aztertzen hasi ginen. Partzuergoa erakunde publikoa da non Gipuzkoako 72 udalerri eta bi mankomunitate dauden –Añarbeko Urak eta Txingudiko mankomunitatea–.

Hainbat bilera teknikoren ostean, beharreko dokumentazio teknikoarekin, oposizioari proposamena aurkeztea erabaki genuen. Biler hartan Partzuergoaren arduraduna egon zen edozein zalantza argitzeko prest. Hala ere, hurrengo egunetan eta hilabeteean, oposizioko inork ez zuen aldaketarako inongo alternatiba edota proposamenik aurkeztu, ezer ez. Ura pribatizatu nahi genuela besterik ez ziguten aurpegiratu, publikoki zein pribatuan. Behin eta berriaz publikoki errepikatu duten gezurra izan da, ondotxo dakitenean publikoa den erakunde batez ari garela, bere estatutuetan argi esaten denez, eta Udal idazkariak 2013ko uztailaren 10ean egindako txosten juridiko batean zehaztu bezala.

“Andoaingo ur hoditeriaren %21,3 nahiko hondatua dago. Hodi zaharkituak dira, ezinbestez aldatu beharrekoak. Horretarako behar den diru partida 5 milioi eurokoa da”

Gogorarazi genien euren alderdiek kudeatzen dituzten Udalek Partzuergoari utzi diotela kudeaketa osoa. Besteak beste, EAJ-PNVk zuzentzen duen Elgoibarko Udala, PSE-EEren esku dagoen Eibarkoa edota Tolosa EAJ-PNV alkateztan zegoenean.

Gaur egun ez da bideragarri edozein udalerri –eta ez bakarrik Andoaingoa, ezta Ermuko ere dirudienez–, uraren kudeaketa orokorrak sortarazten dituen gastuak bere gain hartzea. Eta hori ederki dakite denek. Hala ere, hasieratik gezurretan aritu zaizkie andoaindarrei, eta ederki gainera!

Urtebetetik hona, eta gordinki gainera, EAJ-PNV salaketan aritu da Bilduren gobernuaren kontra. Interesatzen zaigun bakarra Udal kontuak garbitzea dela, Andoain hipotekatuz uraren pribatizazioarekin. Alabaina, Ermuan, Tolosan, Elgoibarren iritzi berekoak al dira jeltzaleak?

Euren burua “kudeatzaile bikaintzat” duten horiek tasen urteroko igoera progresiboa ezarri nahikoa dela diote, hartara pixkanaka hoditeriaren beirritzean inbertituz. Eta horrela kitto, arazoa konponduta. Bai erraza, ezta? Ba has daitezen proposamen zoragarri horri zifra eta datuak jartzen, oraindik ez baitute egin (bosgarren edukiontzia euren plan itzela bezala, sekretu handia izan behar baitu, oraindik inork ez baitu ikusi edo ezagutu). Ez badituzte datu horiek, euren Ermuko edo Elgoibarreko edo Tolosako edo Bizkaiko alderdikideei galde diezaietela.

Oposizio honek benetan bilatzen duena “ahalik eta okerraren orduan eta hobeto” politika egitea da Andoain. Blokeo ekonomikoa bilatzen ari dira, eurek agertzeko salbatzaile handien gisa. Halako bi-dea hartzeko prest daude!

Badira bi urte jarraian, 2013an eta 2014an, oposizio osoak aurkeztutako aurrekontuen kontra egin duela, beste-lako inongo proposamenik aurkeztu gabe. Denari ezezkorekin erantzuten diote. Bitartean herritarrok, egunero bezala, gu udaletxean aurkituko gaituzue lanean.

Postontzia: “Eskola mailako kirol jarduera Urnietan”

JOSE MANUEL GONZALEZ
LEGARRETA. URNIETA:

Aurreko asteko asteartean hedabide batean argitaratu zen artikulua irakurri eta gero, hainbat zehaztapen egitea beste erremediorik ez dut. Paradoxikoa da 12 urtez luzatzen ari den jarduera horretan, azken 8 urtetan pilota ez eskaintzea. Pilota, Euskal Herri osoan eta kanpoan ere indar bizia Duen kirol jarduera hori.

Urnietako Udalak bideratzen dituen 17.000 euro ez omen dira nahiko “eskola mailako kirol jardueren antolaketa eta egituraketa zuzenerako”. Kirol sustapenerako teknikariak nonbait ez du pilota interesgarri ikusten 9-

12 urte dituzten ikasleentzat. Izan ere, antza denez, pilotak ez omen ditu “talde mailako balo-reak errespetatzen”, eta ez dela “talde mailako egitasmozat” hartzen.

Gainera, oso tristea iruditzen zait udaletxetik inor ez jabetzea, ezta zinegotzi bat ere, pilota eskola mailako kirol jardueretik kanpo utzi izanarekin. Ez omen dira egongo azpiegitura egokiak eta gazte begiraleak herrigunean.

Kirol jarduera gehiago dagoela argudiatu daiteke -egia da hori-, baina pilota arrakasta gehien duen horietakoa da. Zuzentzeko eta eskola mailako kirol jarduerak hobetzeko, inoiz ez da berandu.

Postontzia: “Gure aurrezkiak ez ukitu”

EUSKAL HERRIAN SISTEMA
FINANTZIERO PUBLIKOA.
GURE AURREZKIAK EZ UKITU

*Giza-katea Donostian:
Maiatzak 20, asteartea
11:00. Udaletxea*

Euskal Kutxen likidazioaren aurkako adierazpena, hurrengo erakundeekin sinatuta: Eragile sozialak: AHT Gelditu Elkarlana, Euskal Herriko Pentsionisten Plataformak, Kontsumitzaile Elkarteak, M15, Kaleratzerik ez! Stop Desahucios Gipuzkoa, etab. Sindikatuak: EHNE, ella, LAB, ESK, STEE-EILAS, CNT.

Euskal Kutxak-Kutxa-bank likidatzen ari dira zerbitzu publikoari eta gizarte-ekintzari dagozkionez. Helburu bakarra, Hego Euskal Herrian urte luzeetan zehar ereindako aurrezki eta aktiboak akziodunen eta espekulatzaileen esku jartzea da.

Kutxen bankarizazioa eta pribatizazioa, haien kontrol publiko eta sozialaren murrizketa latza, gizarte-ekintzaren argaltze etengabea eta jarraitutako hedapen-politika zoroa, euskal erakunde finantziero publiko bat sortzeko aukera suntsitzen ari dira.

Erabaki hauek eragotzi egingo dute aurrezki eta kreditua Euskal Herriko gizarte osoaren onurarako erabiltzea, euskal produkzio-sare eraginkor bat mantentzea edota guztiok etxebizitza duin bat izan dezagun bermatzeko politikak garatzea, alokairuaren bitartez, esaterako.

Euskal Kutxen aginte-organuetan erabakiak hartzeko gaitasuna izan dutenak dira estrategia hau hautatu dutenak, eta ezin zaie norbere ardurei ihes egin finantza-sistemaren erreforma edota akordioak bete ez

izana bezalako kontuak aipatuz.

Beste toki batzuetan, erreforma berdinekin, kutxek iraun egingo dute eta irtenbideak aurkitu dituzte haien kontrol publiko eta soziala mantentzeko. Hori bera posible litzateke hemen ere, orain arte izandako prozesuan atzera egingo balitz eta neurri politikoak eta legegileak hartuko balira kontrol hori defenditzeko eta euskal eremua defendatzeko.

Arrazio hauek guztiak direla eta, behean sinatzen duten antolakundeek euskal erakunde publikoei, adardi politikoei, gobernuari, legebiltzarrei, foru aldundiei eta udalei eskatzen diegu behar besteko erabaki politiko eta legegileak har ditzaten:

- Euskal Kutxen-Kutxabanken bankarizazio eta pribatizazioan atzera egiteko, euskal gizartearen defendatzeko funtsezkoak diren ardatzak sendotuz: kontrol publikoa, euskal eremua, bertarako inbertsioak eta erakundeon izaera soziala.
- Euskal kreditua eta aurrezki pertsonen eta gizartearen mesedetan kudeatzeko balioko duen euskal finantza-sistema publiko bat eraikitzeko.

Eta helburu honekin galdera eta mobilizazio-dinamika bat bultzatuko dugu, euskal Kutxek akziodun eta espekulatzaile batzuen poltsikoetan buka ez dezaten.



KIROL ALBISTEAK

Piraguan trebatzeko aukera Unanibia zubiaren ondoan

Leitzarango ibaian, Unanibia zubitik gertu, irudi bitxia topatuko dute inguruan pasiatzen dabiltzanek azken aldian: gazte talde bat piraguismoa praktikatzen.



Leitzarango ibaira etortzen dira Atletico San Sebastian klubeko kirolariak trebatzera.

Atletico San Sebastian klubeko kirolariak dira, eta larunbat eta igandeetan gerturatzen dira, gogoko duten kirol horretan trebatzera.



Leitzaranean eskaintzen dituen ur biziaren gustura aritzen dira piraguista gazteak.

Atletico San Sebastian klubak mila kirolari eta hamaika kirol sail ditu eta horietako bat da piraguismoa, ur bizi-tara bideratzen dena. Bada, bertako gazteak etortzen dira Leitzaranoera **Libe Lafuente**, **Eduarne Imaz** eta **Ander Albizu** prestatzaileen agindutara.

Libe Lafuente azaldu du zerk bultzatu dituen Leitzaranoera hurbiltzera. "Kontxako badiak dauka klubak egoitza. Ez gara kexatuko, leku egokia baita piraguismoa praktikatzeko; olatu-ekin-eta ariketa ugari egin ditzakegu teknikan sakontzeko. Hala ere, ur biziaren ibiltzea eskatzen du espezialitateak nahitaez, eta horretarako itsasoa ez dugu nahikoa. Horrexegatik, asteburuetan, furgoneta hartu eta ibaien bila joan behar izaten dugu entrenatzera".

Frantziara, Bidasoara, Pirinio-etara..., hainbat tokitara joan ohi dira ur lasterretara. Otsailen itsasaldean gertatu zen denborale zakarrak eragin du, zeharka bada ere, Atletico San Sebastian klubeko piraguietek Leitzarango ibaiara sartu zen klubaren instalazioetan eta dena hankaz gora utzi zigan. Hutsetik hasteko premia larria sentitu genuen, gauzak beste modu ba-



Joan den larunbatean Leitzaranoera hurbildu ziren piraguietak, Libe Lafuente eta Eduarne Imaz entrenatzaileekin.

tera planteatu beharra. Garai hartan, kolaboratzaile batek Leitzarango bailaraz eta ibaiatz hitz egin zigun. Bada, probatzea, bide berri bati ekitea erabaki genuen".

Unanibiko zubitik presa zaharrera doazen berehun metro eskaseko tartea hartu dute euren prestakuntzarako eremu gisa. "Izugarri polita da ingurua eta ibai zati hori ere egokia ikusten dugu piraguismoa praktikatzeko. Gozatzekoa, Leitzaranean ur

"Inguruarekin oso ardurasu jokatzeko saiatzen gara eta kirola besterik ez dugu egin nahi, ibaiaren jaitziera azkarra probestuz"

emari handia dakarrenean batik bat. Izan ere, ur emari hori eskasa denean, harkaitzak agerian geratzen dira eta piraguak hondatzeko arriskua dago".

Klubeko ordezkariak Ando-

aingo Udalarekin eta Aldundiarekin hitz egin dute aurretik, elkarrekin baldintzak adosteko. Bertako inguruarekiko eta ekosistemarekiko errespetuan oinarritu dira. "Material guztia Otietako Bisitarien etxean gordetzen dugu".

HASIERAKO ERREZELOAK

Piraguismoa gauza berria da Leitzaranean, eta Libe Lafuente aitortu du bertara hurbiltzen den jendearen begietara arro-

tzak egin daitezkeela, hasieran batik bat, eta errezele hartu horien jarduna. "Ulertzen dugu ezezagunak egiten zaizkigun gauza guztiekin gertatu ohi zaiguna gertatzea, alegia gu inbaditzaileak bezala ikustea kasik. Badakigu Leitzarano harana oso leku kuttuna dela arrantzaleentzat, naturzaleentzat eta beste askorentzat, are gehiago Unanibia zubiaren inguru guztia. Hala ere, konfiantza pixka bat eskatuko nieke guztiei. Inguruarekin oso arduratsu jokatzeko saiatzen gara eta kirola besterik ez dugu egin nahi, ibaiaren jaitziera azkarra probestuz".

Lafuente edonon gonbidatu du Unanibiako zubi aldera joan eta Atletico San Sebastianeko piraguista gazteen ur gaineko abileziak ikus ditzan. "Gu ezagutzeko parada edukiko du eta gainera, kirol ikusgarriaz gozatu ahal izango du".

Egoera suertatuko balitz, Andoingo jendeari piraguan nola ibili erakusteko prestutasuna agertu du Lafuente: "Normalean Donostian ematen ditugu ikastaroak, baina zergatik ez, prest geundeko Andoingo gazteei ere erakusteko, hemen, Leitzaranean". Oraingoz, piraguak eta begiraleak iraila arte asteburuetan ikusi ahal izango ditugu Leitzarano haranean.



KIROL ALBISTEAK

Aurkari zaila izan zen Donostia taldea Gipuzkoako Herriarteko txapelketan



Eskuz Gipuzkoako Herriartekoan parte hartzen ari den Andoaingo taldea.

0-3 nagusitu zen Donostiako taldea, Andoaingo bikoteen aurkako hiru partidak irabazita. Ehunka ikusle bertaratu zen Andoaingo hiru bikoteak animatzera. Donostiarrak hanka bat hurrengo kanporaketan

duela esan daiteke eta Andoaioni, zoritxarrez, lehen buruz burukoan agortuko zaio txapelketan bidea egiteko aukera. Asteburu honetan, itzulikoan, Andoni Alvarezen mutilak ezustea ematen saiatuko dira.

PALA ASTEBURU HONETAN

Andoaioni, palaz, Erretereria egokitu zaio Gipuzkoako Herriarteko final-laurdenetako kanporaketan. Joanekoa Erretererian jokatu dute, asteburu honetan. Zorte on!

Iturzaeta memoriala, pala motzean

Sorabillan adiskidetasunezko partidak jokatzen ari diren birtartean, Arrate pilotalekuan pala motzeko jardueran Euskal Herri osoko jokalariek lehiari ari dira. Aurreko asteburuan jokatu ziren lehen partidak:

Vega - Perez	40
Plano - Bagazgoitia	32
Altuna - Txiki	40
Iradi - Garate	38

Lehen partidari lau jokalariek bikain aritu ziren. Planoren joko ona ez zen nahikoa izan Ibai Perezen defentsa harrigarria gaitzetzeko.

Iradi eta Altuna andoaindarrak elkarren aurka lehiatu ziren bigarren partidari, emozioz gainezka izan zena. Markagailuan 38-38 berdinduta egon eta gero, Altuna-Txiki bikotea gailendu zen.

Txapelketak aurrera darrai eta ostiral honetan -maiatzak 16- gaueko 21:30etan partida berria jokatu da:

Plano-Bagazgoitia
Lakalle-Andonegi



Emakumezkoak asteburu honetan

Maiatzak 16, ostirala

17:50	Amaia Imaz - Eneritz Agirre
	Alaine - Elixane Jauregi
18:10	Naiara - Oihana Arruti
	Garbiñe U. - Amaia G.
18:30	Ainara Beraza - Ane Jalon
	Rakel - Sara de Jesus
18:50	Alaine - Elixane Jauregi
	Ekiñe Mendizabal - Aloña U.
19:10	Naiara - Oihana Arruti
	Ainara Beraza - Ane Jalon
19:30	Olatz Esnal - Neide G.
	Rakel - Sara de Jesus

Maiatzak 18, igandea

19:00	Olatz Esnal - Neide G.
	A. Loiarte - I. Amondarain
19:20	Ekiñe Mendizabal - Aloña U.
	Garazi - Irati L.
19:40	A. Loiarte - I. Amondarain
	Garbiñe Ugalde - Amaia G.
20:00	Esti - Alazne
	Garazi - Irati Loiarte
20:20	Ainarika - Izarne Oiarzabal
	Amaia Imaz - Eneritz Agirre
20:40	Esti - Alazne
	Ainarika - Izarne Oiarzabal

Pilotakadaz pilotakada ekimena, igande honetan

Euskal presoen sakabanaketaren amaiera eskatzeko "Pilotakadaz pilotakada" ekimena antolatu du Etxerat erakundeak. Eskualde mailako "txapelketa" Buruntzaldeko hainbat herritan jokatu da. Andoaingen, igande honetan bertan, egun osoko egitaraua osatu dute.

Maiatzak 18, igandea Andoaín, Goikoplaza

10.00: Gaztetxeko txapelketa.
13.30 Haur jolasak.
14.00 Bazkari herrikoa.
15.00 Helduentzako jolasak.
15.30 Gaztetxeko pilota partidak.
19.00 Argazki masiboa.



Lan ona egin du Josu Arregi txirrindulariak Lleida aldean

Lleidako Vall de Lord herrian jokatu-tako lasterketan parte hartu du Josu Arregi andoaindarrak asteburu honetan. Españako Openaren hirugarren froga zen eta egindako lanarekin gustura itzuli da gaztea. Larunbat arratsaldean, bosgarren postua erdietsi zuen erlojuaren aurkako frogan eta zazpigarren izan zen igandeko lasterketan. Bi aste barru izango du hurrengo lasterketa, Trintxerpen. Gipuzkoako txapelketa izango dute bertan jokoan.



Izarne Mayoz Gipuzkoako txapeldun

Andoaingo Txirrindulari Eskola-ko **Izarne Mayoz** infantil mailako Gipuzkoako txapeldun izan zen, aurreko asteburuan Tolosan ospatu zen txapelketan. Alebin mailan, bestalde, **Maddi Rodriguez** hirugarren izan zen. Zorionak! Mutilek ere lan polita egin zuten.

Jubeniletan, **Mikel Alonso** Espainiako selekzioarekin nazioarteko kopako Trofeo Centre Morbihan parte hartzera doa maiatzaren 24an eta 25ean.



Preferenten gaikaldean amaitu dute bi taldeek

Erregional Preferentea

30. Jardunaldia, maiatzak 10-11:

Lengokoak 0-1 Urnieta
Hernani 2-2 Euskalduna

Sailkapena:

1. Usurbil	58
2. Martutene	54
3. Euskalduna	52
4. Sanpedrotarra	52
5. Mariño	52

6. Lengokoak 50

7. Urnieta 46

16. Behobia 20

Erregionala, 1. maila. Kopa

Sailkapena:

1. Gazte Azkuene	30
2. Ontzerri	26
3. Segura Goierri	22
4. Euskalduna B	11

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larramendi
Kultur Buzkara

INISTORRA

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jauriritza

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek
bi udalerri hauen
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOINGO UDALA

URNIETAKO UDALA

Argitaratzailea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Aiurri eskuragarri:

Etbez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.com
Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.com
Erredaktoreak:
Xabier Lasa,
Joxeba Lizeaga
eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta
Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.com
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu

txikia:
diseinua@aiurri.com
www.aiurri.com
Lege Gordailua: SS-1078/04
ISSN: 1698-4870
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa

arduraduna:
Garbiñe
Ugartermendia.
idazkaritza@aiurri.com
Tel.: 943 300 732

Banatzaiak:

Mikel Arregi
(Andoain), Gaizka
Bernardo (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia.
Huarte-Iruñea.



Agenda

MAIATZAREN 15ETIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero

■ “Pompeya”.

Lar., 17. 19:30 / 22:00. / 3D
Igandea, 18. 19:30.
Astel., 19. 19:30 / 22:00.

Urnietan, Sarobe

■ “Peabody y sherman”

Igandea, 18. 16:00, 18:30.

Musika

Lasarte-Oria

■ Euskal Herriko batukada taldeen II. Topaketa, Urnietako Buruntzantzan taldearen parte hartzearekin. Maiatzak 17, larunbata.

Dantza

Andoain, Bastero

■ Samadhana, sabel dantza ikuskizuna. Maiatzak 18, igandea. 12:00.

Balleta

Urnietan, Sarobe

■ Ballet eta sormen dantza taldekoen ikasturte amaierako erakustaldia. 17:00. Sarobe. Maiatzak 21, asteazkena.

Hitzaldia

Urnietan, Gaztegunea

■ Ecuador: bi urnietar gaztekooperanteen bizipenak. 19:00. Gaztegunea. Maiatzak 21, asteazkena.

Literatura

Andoain, Liburutegia

■ Literatur solasaldia: “Kristalezko begi bat”. Izena emateko: liburutegia@andoain.org. Maiatzak 27, asteartea.

Erakusketa

Andoain, Bastero

■ Pablo Donezar: “Hamsterra bere gurpilean”. Ekainaren 21a bitarte.

San Isidro

Urnietan

■ Udalak baserritarren elkar-tearekin batera ondorengo egitaraua osatu du:
11:00 Meza.
11:45 Hamaiketako Leikaion. Ondoren, bertso-saioa: Patxi Etxeberria eta Beñat Gaztelumendi.
14:00 Baserritarren bazkaria Zaldundegin. Maiatzak 15, osteguna.

Sariketa

Urnietan

■ Antia literatur sari banaketa ekitaldia. Maiatzak 16, ostirala. 19:00. Gaztelekua.

Pailazoak

Urnietan, Egape

■ Bizipoza Pirritx eta Porrotxen berriena. Salgai: Kantoi, Amailur, Ernaitza, Aiurri. 17:30. 7 euro. Maiatzak 28, asteazkena.

Odol-emaileak

Urnietan

■ 18:30-20:30. Maiatzak 30, ostirala.

Kanpaina

Andoain

■ Udalak eta Salkin merkatarien elkarteak ekimen berria martxan jarri dute, maiatza osoan zehar luzatuko dena. 5 euroko erosketa egiten duenak herri barruan ibiltzeko bus txartela eskuratuko du. Maiatzaren 31 bitarte.
■ Udal musika eskolak 2014/15 ikasturterako matrikulazio kanpaina: klarinetea, tronpeteta, tronboia, saxofoia, baxua, gitarra, biolina, akordeoia, perkusioa, pianoa, kantua. Azken eguna: Maiatzak 16. Izen-ematea: Bastero.

Kalejira

Andoain, Goikoplaza

■ Gure esku dago ekimenak antolatuta, kalejiran jaitsiko dira Juanita Alkain plazaraino, bertan giza-katea egiteko. 12:00 Goikoplaza. Maiatzak 17, larunbata.

Jaia

Urnietan, Salesiarrak

■ Bosko Anitz aisialdi taldeak ikasturteari amaiera eman dio “Onyi jaialdia”rekin. 17:00. Salesiarrak. Maiatzak 17, larunbata.

Omenaldia

Andoain

■ Miguel Amas andoaindarra hil zela urte bat igaro da, eta hori dela eta bere lagunak datorren iganderako omenalditxo prestatzen ari dira. 10:00 Besabitik Etenetara. 11:00 Omenaldia Etenetan. 14:30 Bazkaria Mizpiradin. Maiatzak 18, igandea.

Bilkura

Donostia

■ Giza-katea: “Euskal Kutxen likidazioaren aurka”. Hainbat elkarte eta sindikatuk deituta. Maiatzak 20, asteartea. 12:00. Udaletxea.

Lehiaketa

Urnietan

■ Argazki rallya. Lehiakide bakoitzak, gehienez, 7 argazki aurkeztu ditzake eta maiatzaren 28an aurkeztu beharko dira modu digitalean (JPEG formatuan). Bi maila: helduena eta 14 urtetik berakoena. Ekainaren 10tik 13ra bitartean lehiakide guztien argazki onenen erakusketa. Argazkiak herrian barrena. Maiatzak 25, igandea.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Ikernek maiatzaren 20an 9 urte beteko ditu. Zorionak izurde!! Guraso eta ahizparen partetik, horrela jarraitu. Muxuak

ANDOAIN


ZORIONAK



Maiatzaren 11n Oier gure etxeko txikiak 2 urte potolo bete zituen. Zorionak pototo! Muxu pilo bat. Etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Hilaren 6an, Urkork 9 urte bete zituen. Konturatu gabe gizontxo bihurtzen arizara. Segi jator, maite zaitugu.

URNIETA



ZORION AGURRAK

Oso erraza da:
diseinua@aiurri.com
www.aiurri.com

Lan poltsa Andoainen

Andoaingo Udaleko Obra eta Zerbitzuetako ordezkapen etarako

Maiatzaren 22ra arte egongo da deialdia zabalik, eta eskarakerak Herritarren Arreta Zerbitzuan aurkeztu beharko dira. Maiatzaren 22a barne,

08:00etatik 14:00etara egongo da aurkezteko aukera. Deialdiaren oinarriak eta informazioa ikusteko jo ezazue Udalaren web orrira, Herritarren Arreta Zerbitzura edota Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 84 zenbakira.

Matrikulazioa Galardin

2014-2015 ikasturterako matrikulatze kanpaina maiatzaren 26tik ekainaren 6ra bitarte indarrean izango da. Aurtengo iraila eta abendua bitartean hastekoak direnek

dokumentazioa aurkeztu beharko dute. Informazio gehiago Atarian 08:00-14:00 artean edota Basteron 10:00-13:30 eta 16:30-19:30 orduen artean.

Izartxo festa Bekoplazan

Larunbat honetan -maiatzak 17- Izartxo aisialdi taldeak hamargarren urteurreneko festa ospatuko du Bekoplazan. Arratsaldeko 16:00etan

hasita jolasak antolatu dituzte, eta 17:30etan hasita Ingo al deu? taldeak kontzertua eskainiko du Bekoplazan bertan.

Santi Millan Basteron

Santi Millan aktorea taula gainera itzuli da, bere ibilbideko emanaldi jostalari eta pertsonalarenarekin. Antolatzaileek aurreratu dutenez, umore fresko eta originaleko bakarriketa aurkeztuko du saioan zehar, ikus-entzunezko efektu ikusgarriekin, ikusleekin harremana mantenduz eta hori guztia gutxi balitz, musika ona eta beste hainbat sorpresa bilduz. “Gau umoretsu ahaztezina eskaintzen du, showman popularraren estilo bete-betean”.

Emanaldian zehar, Santik kantari izarra izateko ametsaren inguruko txantxak egingo ditu, baina azken batean, bere hiru pasioak aurkeztuz emanaldia estreinatzea erabaki duela iragarriko du. Zein hiru pasio? Bada, musika, sexua eta umorea. Aktoreak berak adierazitakoaren arabera, “egoera zail hauetan, festan jarraitzen dut nik”.
Maiatzak 25, igandea.
20:00. Sarrera: 15 euro. Basteroko auditorioa.